



KULTURA FEDERALAREKIKO HURBILKETA

Bada “kultura federal” bat? Eta hala bada, zer nolako ezaugarriak ditu?, nola garatu da historian?, zeintzuk dira horrekin batera doazen baloreak?, zer nolako eraginak ditu politikan? Galdera horiei guztiei eta eztabaidan sor daitezkeenei erantzuten saiatuko dira hausnarketa horretara gonbidatuak diren **Antonio Rivera Blanco**, Euskal Herriko Unibertsitatearen Historia Garaikidearen Katedraduna, eta **Demetrio Velasco Criado**, Deustuko Unibertsitatearen Pentsamendu Politikoaren katedraduna.

Euskal Herriko Federalistak Elkarateak antolatutako eta parte hartu nahi duten guztiontzako **ekitaldia otsailaren 10ean egingo da, arratsaldeko 19:15etan, Bilboko Abandoko Udaltegian (Elkano kalea, 22)** eta Elkaratearen Pilar Pérez-Fuentes presidenteordeak zuzenduko du.

EUSKAL HERRIKO FEDERALISTAK ELKARTEAREN II. BATZAR NAGUSIAREN AKTAREN LABURPENA

Abenduaren 3an, asteartearekin, Euskal Herriko Federalistak Elkaratearen II Batzar Nagusia bildu da Abando Barrutiko Udaltegian. Bilera 18:45ean hasi eta 21:00an bukatu da. 60 kide izan dira bertaratu direnak.

Lurdes Auzmendi presidentea zuzendu du ekitaldia eta Josu Ugarte izan da idazkaria. Beste bi mahaikideak Pilar Pérez-Fuentes presidenteordea eta Manu Ibáñez de Aldecoa, bokala, izan dira.

AGURRA ETA GAI-ORDENAREN AURKEZPENA

Presidentea batzar nagusia ireki du bertaratukoak agurtuz eta hitzaldi labur bat eginez.

- **Gai-zerrenda onartu da hurrengo modu honetan geratzen delarik:**
 - **Gai-ordenaren aurkezpena.**
 - **2018-2019 jardueren balantzearen aurkezpena eta onarpena.**
 - **Alberto López Basaguren azalpena Euskal Herriko Autonomia Estatutu berriaren inguruan.**
 - **2020rako jardueren plangintzaren aurkezpena eta onarpena.**
 - **Asociación Por una España Federal delakoarekin bategitea.**
 - **Araba eta Gipuzkoako egoitzak eta balantze ekonomikoaren, aurrekontuaren eta kuota berrien onarpena.**
 - **Zuzendaritzaren hautaketa.**
 - **Iradokizunak, galderak eta batzarraren bukaera.**

2020RAKO JARDUEREN PLANGINTZAREN AURKEZPENA ETA ONARPENA

Mikel Zabaljauregik azaldu egiten du modu laburrean Euskal Herriko Federalistak nola sortu ziren, bide batez, 2018 bigarren seihilekoan egindakoaren berri ematen duelarik. Ondoren ikasturtean zehar egindakoa gogoratu eta baloratu du: eredu federalei buruzko hitzaldiak, “Federal” dokumentalen emanaldiak eta ondorengo eztabaidak, webgune berria sortzea, Elkaratearen logoaren diseinua...; azkenik, Eibarko Itun Federalaren 150. urtemugaren oroimenez egin ziren ekitaldien berri eman du eta adierazten du ekitaldiaren beraren oihartzuna komunikabideetan behar bestekoa ez izan arren, data horien inguruan bederatzi iritzi-artikulu argitaratu zirela 1869an sinatu zen itun hori gaitzat hartuta.

- **Baiespenez onartzen da 2018-2019 jardueren balantzea**

ALBERTO LÓPEZ BASAGURENEN AZALPENA AUTONOMIA ESTATUTU BERRIAREN INGURUAN

Alberto López Basagurenek –Estatutu berriaren egitasmoaz aritu den adituen batzordeko partaide-uste du 1979ko estatutu-kontsentsua indartzeko beharrezkoak direla zenbait baldintza kontuan izatea, elkarbitza-kontsentsu batean elkarrekiko amore emateak nahitaezkoak direla betiere Konstituzioaren barruan eta gora behera horietan gauza batzuk beste batzuk baino onargariagoak izango direla. Albertok uste du, gure manifestu federalaren oinarriak berretsiak suertatu direla eta estatutu batek ezin dituela hastapen eta espirtu konstituzionalak aldatu. Halaber, jakinarazi du, zenbaitek, eskubide historikoen amarruaren bitartez, lortutako kontsentuak okertu nahi dituztela beren helburuak lortzeko asmoarekin. Uste du beharrezkoa dela etorkizuneko estatutu horren edukia ongi azaltzea eta horien inguruan eztabaidatzea Elkarrekin hiru hiriburuetan antolatu beharko litzuzkeen ekitaldietan. Beraren aburuz, eredu federal baten eraikuntza oso epe luzerako eginkizuna da, zaila baina egingarria eta ez ditu sortzen ondorio desorekagarriak edo gizarte-hausturarik Euskal Herrian. Beste edozein alternatiba edo bidera ezina da, edo irtenbiderik gabeko leku batera edo gatazka sozial eta politiko batera garamatza. Bide federala juridiko eta politikoki baliagarria da.

Azalpena bukatu ondoren hitza eman zitzaion batzarrari eta beste gauzen artean honako hauek planteatu ziren:

- Hausnarketa bat egin behar genukeela gure komunikazio tresnei buruz, gure ideiek gazteengan eragina handiagoa izan dezaten.
- Ildo beretik garrantzi handia eman material didaktiko egokiak egiteari gure postulatuak errazki eta pedagogia egokiarekin hel daitezten.
- Gazteak arduratzen dituzten gaiak klima-aldaketa, genero bortizkeria eta gizarte desberdintasun gorakorarekin zerikusia dute. Azaldu egin behar dugu alternatiba federalak nola lagunduko duen arazo horiek konpontzeko. Muturreko eskuinak ongi lotzen ditu bere diskurtsoa eta mezuak gazteen ardura horiekin.

2020RAKO JARDUEREN PLANGINTZAREN AURKEZPENA ETA ONARPENA

Pilar Pérez-Fuentesek azaldu eta laburtu egiten du 2020ko jardueren plangintzaren proposamena (gauzatzen diren heinean zabalduko da). Proposamenak lau helburu nagusi jorratzen ditu:

1. Irtenbide federala bultzatzeko irizpideak bilatzea
2. Kultura federalean barneratzea.
3. Elkarrekin ezarpena hobetzea.
4. Elkarrekin barneko antolakuntza suspertzea.

Eztabaida txandaren bi ideia hauek azpimarra daitezke:

- Komenigarria izango litzateke eztabaidaguneak eratzea, non zalantzan jarri behar den ituna autoritarismo eredu bat den eta plebiszitoa, ordea, demokraziarena.
- Egokia izango litzateke federalismoaren funtsezko ideiei buruzko material pedagogikoak sortu, eztabaidatu eta hedatzea.

ASOCIACIÓN POR UNA ESPAÑA FEDERAL DELAKOAREKIN BATEGITEA

Jorge Letamendiak azaroaren 13an Madrilen egin zen bileraren berri ematen du, adostasunak eta eztabaidaren zenbait alderdi azalduz. Horiek artean, honako hauek:

- Espainiako zuzendaritzaren lehen akordioa Elkarrekin lurralde guztietara hedatu beharra eta ideia federalaren jarraitzaileen esparru ideologikoa zabaltzea da.
- *Statu quo*-ren tentazioa ekidin behar da, Espainian indartuz joan baitira muturreko nazionalismoak, Euskadin edo Kataluinan... baina baita ere nazionalismo espainiarra. Euskal estatu berria botatu nahi dugu eta bai Kataluinakoaren *aggiornamento*. Ekidin egin beharko dira “konponketatxoak” Kataluinako gatazkan eta aurrera egin behar da ikuspegi federal batean.
- Beharrezkoa da ikuspegi federala Espainiako panorama politikoan txertatzea, eztabaidetan eta soluziobideetan.
- Komenigarria ikusten da iritzi-artikuluak, manifestuak eta ideia federalak zabaltzea. Saihestu

- egin behar da “guadianismo” federala...
 - Konstituzioaren erreformak oinarri federalak izan behar ditu eta espiritu federala duten lege konkretuak ekarri.
 - Ez dagokie elkarte federalistei agora politikoan proposamen politikoak aurkeztea edota akordioak lortzea elkarte federalaren multzoan, aitzitik, sortu egin behar du eredu federala indartzeko klima politiko eta eztabaidazko egokia.
- **Azalpenaren ostean, baietsi egiten da *Euskal Herriko Federalistak Elkarteak Asociación Por una España Federal* elkartearekin bat egitea.**

ARABA ETA GIPUZKOAKO EGOITZAK ETA BALANTZE EKONOMIKOAREN, AURREKONTUAREN ETA KUOTA BERRIEN ONARPENA

Araba eta Gipuzkoako egoitzak irekitzeko baimena.

Elkartearen Estatutuek 3. artikuluan, bigarren paragrafoan zera diote: *“La Asociación podrá disponer de otros locales en el ámbito de la Comunidad Autónoma, cuando lo acuerde la Asamblea General”*. Gipuzkoan eta Araban egoitzak izatea oso komenigarria ikusten delarik, baimena eskatu zitzaion Batzarrari Zuzendaritzak horretarako behar diren izapideak egin ditzan.

- **Batzarrak baimen hori eman du baiespenez.**

Behin behineko finantza balantzea

▪ Sarrerak	5.213,88 euro
▪ Gastuak	4.509,58 euro
▪ Saldoa	704,3 euro
Sarrerren xehetasunak	
▪ Kuotak	4.554,00 euro
▪ Beste sarrerak (ekitaldietan batutakoa)	659,88 euro
▪ Sarrerak guztira	5.213,88 euro
Gastuen xehetasunak	
▪ Itzulpen zerbitzuak	2.062,66 euro
▪ Bisitarien ostatua eta garraioa	1.479,55 euro
▪ Zerbitzu grafikoak	576,29 euro
▪ “Federal” dokumentala.....	181,00 euro
▪ Web zerbitzua	134,26 euro
▪ Banku-zerbitzuak	75,82 euro
▪ Gastuak guztira	4.509,58 euro

2020ko aurrekontua. Sarrerren eta gastuen balioespena

Sarrerren balioespenaren xehetasunak

▪ Kuota arruntak	8.400,00 euro
▪ Gutxieneko kuotak	40,00 euro
▪ Kuota bereziak	200,00 euro
▪ Kide berrien kuotak.....	1.500,00 euro
▪ Ekitaldietan batutakoa	560,00 euro
▪ Diru-laguntzak eta antzekoak	(zehaztu gabe)
▪ Sarrerren balioespena guztira	10.700,00 euro

Gastuen balioespenaren xehetasunak

▪ Banku gastuak	150,00 euro
▪ Web eta hedapen gastuak	300,00 euro
▪ Ekarpena <i>Por una España Federal</i> -i	300,00 euro
▪ Gastu handiko ekitaldiak	2.770,00 euro
▪ Gastu ertaineko ekitaldiak	3.680,00 euro
▪ Gastu txikiko ekitaldiak	2.000,00 euro
▪ Beste ekitaldietan partehartzea	1.500,00 euro
▪ Gastuen balioespena guztira	10.700,00 euro

Elkartea barrutik

Une honetan 172 kide gaude Elkartean (%28 emakumezkoak eta %71 gizonezkoak). Lurraldekako banaketa honako hau da: 103 Bizkaian, 37 Gipuzkoan, 21 Araban eta 11 Euskal Herritik kanpora bizi direnak. Esan beharra dago Elkartearekin harremana duten pertsonak 347 direla. Manifestuaren sinatzaileak 327 dira, kideak 172 eta 20 izena eman duten pertsonak bazkide izan gabe eta manifestua publikoki sinatu gabe.

Kuoten igoera 2020 urterako

Batzarrak aho batez onartu du **urteko kuota arrunta 50 eurora igotzea**. Izan ere, orain arteko kuota mantentzeak (20 euro) mugak handiak jartzen dizkio elkartearen jardunari. Honekin batera Elkarteak ekintza-egitasmoak antolatu behar ditu hainbat administrazio publikoetan diru-laguntzak eskatu ahal izateko edota babesleak bilatu behar ditu zenbait ekitaldi konkretuak egiteko.

Horrez gain, **mantendu egiten da urteko kuota murriztua (10 euro)** ikasleentzat edo hileko errenta Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata baino txikiago duten herritarrentzat.

Eskertzekoa litzateke kideek **laguntza kuota (100 euro edo gehiago)** ematea erabakiko balute, hori jakinaraztea *email* bat bidaliz (euskalfederalistak@gmail.com) "laguntza kuota" adieraziz.

- **Baiespenez onartzen dira 50 euro/urteko kuota berria, aurkeztutako balantze ekonomikoa, balioetsitako aurrekontua eta Zuzendaritzari emandako baimena Araba eta Gipuzkoako egoitzak kudeatzeko.**

ZUZENDARITZAREN HAUTAKETA

Aurreko Zuzendaritzaren 22 kideren artean 17k jarraitzeko asmoa agertu dute. Lau kide hauek Zuzendaritzara sartzeari proposatzen da: Ioana Etxezarreta, Javier Otaola, Santiago Bengoa eta Adela Asúa.

- **Horrela bada, onartu egiten da Zuzendaritza berria, honako partaide hauekin: Mertxe Agúndez, Ricardo Arana, Mercedes Arbaiza, Adela Asúa, Lurdes Auzmendi (presidentea), Santi Bengoa, Pello Gutiérrez, Manu Ibáñez de Aldecoa (diruzaina), Ángel Landabaso, Jon Larrinaga, Jorge Letamendia, Alberto López, Javier Otaola, Ioana Etxezarreta, Luis Miguel Pariza, Pilar Pérez-Fuentes (presidenteordea), Antonio Rivera, Begoña Sagasti, Nieves Terán, Josu Ugarte (idazkaria) eta Mikel Zabaljauregi.**

IRADOKIZUNAK, GALDERAK ETA BATZARRAREN BUKAERA.

Elkartearen presentzia publikoaren modu berriei buruz hausnarketa bat egitea proposatzen da. Halaber, sari federal bat konbokatzea proposatzen dute elkartekide bik eredu federalaren inguruko ikasketa eta proposamenentzako.

Azkenik, Lurdes Auzmendik batzarrari bukaera ematen dio 21:00an.

OHAR GARRANTZITSUA – URTEKO KUOTAREN ORDAINKETA

Aurtengo kuota datozen egunotan kobratuko zaie bankuaren bidez egiteko datuak eman dituzten guztiei.

Bankuaren **datuak eman ez dituztenek ordaindu ahal dute zuzenean**, dagokion kuotaren arabera (murriztua 10€ / arrunta 50€ / laguntza-kuota 100€) Euskal Herriko Federalistak Elkarteak FIAREn duen kontuan, IBAN: **ES26 1550 0001 26 0007633126**, **izen-deituraz adieraziz**.